Uneotan ELAk nabarmendu nahi du jendartea aintzat hartu behar dituela herri-botereek ematen dituzten segurtasun- eta osasun-arau guztiak. Eta gaitzetsi egiten ditu, horrenbestez, arau horiek urratzen dituzten jokabideak, banako zein taldeenak direla ere, baita polizieei eta funtzionario publikoei egindako erasoak ere.

Kolektibo horien defentsak ez du esan nahi polizia bat goraipatuko duenik polizia izate soilagatik eta bere ekintzak alde batera utzita, gure agintariak eta sindikatu korporatiboek egiten duten moduan. Poliziaren lana demokrazian soilik legitima daiteke baldin eta kontuak emateko mekanismo zorrotzak bidaude, aginte-kateari, gobernuari, parlamentuari eta oro har giza eskubideen defentsako erakundeei, esaterako Arartekoari. Hain zuzen, ELAk galdegin du azken egunetan indarrez egindako operazio polizial jakin batzuk zorrotz iker daitezela, baita buruen aginduak ere, hala publikoak ezagutu ez dituenak, nola sare sozialetan agertu direnak, benetan kezkagarriak.

ELAk ez ditu inola ere ontzat ematen Ertzaintzako zenbait sindikatu korporatibo komisarietan eta hedabideetan hedatzen ari diren mezuak. Hain zuzen, bi ildo bereziki arduragabeak eta arriskutsuak dira: batetik, indar eta arduradun politiko batzuei istiluen ardura egozten ari dira, eta, bestetik, eskatzen dute gorroto delituagatik auzipetzeko Ertzaintzarekiko kritikoak diren herritarrek, edo hari errieta egiten diotenak.

Necesitamos un debate sereno y profundo sobre el modelo policial, y los servicios públicos deben disponer de los recursos suficientes. ELA está dispuesta a ese debate

Gorroto delitua ez zen definitu kritika soziala isilarazteko. Bestalde, adierazpen askatasunak babestu egiten du herritarrek poliziei agiraka egitea edo adierazpide injustuak, are zantarrak, erabiltzea. Tamalgarria da benetan sindikalismo korporatiboak azpikultura polizial jakin bati eustea, noiz eta uste genueneanhonezkerogaindituta zegoela.

Urtetan administrazio autonomikoek eraso egin diote ELAk Ertzaintzan ordezkatu izan duen klase-sindikalismoari. Oraingo egoeran eta antzekoan are nabarmenagoa da sindikalismo korporatiboa zein puntutaraino izan daitekeen botere politikoarentzat funtzionala, herritar gutxi batzuen arauhauste eta delituetan fokua jarriz eta pandemiaren kudeaketa politikoa ke-lainoz estaliz.

ELAk arbuiatu egin du lehendakariak eta beste arduradun politiko batzuek egin duten istiluen erabilpen politikoa, errelatoaren norgehiagoka puztu eta horrela etekin politikoa lortu nahi baitute; haatik, horrek ez dauka zerikusirik egungo gure herriko bizikidetza sozial eta politikoarekin.

Polizia-lana ez da erraza izaten eguneroko martxan; are gutxiago pandemia betean. Egunotan gertatu denak erronka jo die eragile politiko eta sozialei, baita herri-erakunde eta -botereei ere: polizia-ereduari buruzko eztabaidea lasai eta sakona egiteko premia dugu, eta zerbitzu publikoek behar adina baliabide izan behar dute eskura. Gu prest gaude eztabaidea horretarako. Behar baitugu. ■



“Hay que vacunarse”

La vacunación generalizada y, en especial, la de los colectivos de riesgo y sus contactos, reducirá los riesgos de la expansión de la enfermedad

> Nerea Ispizua

ELA, como organización que pone la vida y las personas en el centro, lo tiene claro: hay que vacunarse. “La vacunación generalizada y, en especial, la de los colectivos de riesgo y del personal que está en contacto con ellos reducirá notablemente el peligro de contraer la enfermedad, así como las posibilidades de contagiar a otras personas. La vacuna es fundamental para frenar el Covid-19”, responde **Pello Igeregi**.

responsable de Seguridad y Salud Laboral que, además, considera necesario garantizar el derecho de todo el mundo a acceder a la vacuna y apoya la solicitud para suprimir las patentes. “La salud es un derecho. No se puede aceptar la lógica de favorecer el negocio privado a costa de la salud, y más cuando esas vacunas se han conseguido en tan corto espacio de tiempo gracias a una inversión pública enorme”.

En relación a la campaña de vacunación, ELA reclama a los Gobiernos información, seriedad y rigor, ya que, una vez más, se han negado a negociar con los sindicatos ningún protocolo de actuación ni plan de vacunación de las plantillas de las residencias y de los servicios de salud. “Nos enteramos por la prensa de que iba a dar comienzo la vacunación del personal de Osakidetza y, en este momento, ni siquiera se nos había trasladado

protocolo alguno para realizar esa vacunación. La consejera Sagardui nos ha llegado a decir que no tiene por qué tratar ese tema con los sindicatos”.

Altos cargos de Osakidetza se cuelan en la vacunación

La falta de transparencia respecto a la vacunación, sus planes y protocolos no ayuda a convencer a las personas reacias a vacunarse, tanto en las residencias como en la propia Osakidetza, que haberlas, haylas. “Se ha dado ya la primera dosis de la vacuna a personal y usuarios de prácticamente todas las residencias de ancianos y acaba de empezar la del personal de Osakidetza. Y sí, tenemos constancia de que hay trabajadoras y trabajadores que se han negado a ponerse la vacuna”.

“Asmo onen adierazpenez gain, ez dago mahai gainean Osakidetzak bizi dituen arazoei irtenbidea emateko neurrik”

“Una de las propuestas de ELA es que, al no haber dosis suficientes para todo el mundo, se vacunaran primero quienes lo tienen claro para que el resto, más tarde, al ver que se trata de una vacuna segura fueran animándose a ello”, explica Igeregi, que achaca a la sobreinformación y al miedo el rechazo de las personas a vacunarse. “Las noticias de cargos de Osakidetza vacunándose, saltándose los protocolos deberían servir para que los más escépticos se convenzan con hechos de que las vacunas son seguras”, comenta con ironía.

Falta información, sober imposición

Y si la pandemia está dejando en evidencia los problemas estructurales de Osakidetza, la campaña de vacunación, aún más. Un proceso que hay que analizar en una doble dirección, hacia dentro, la



vacunación de los y las profesionales del sector; y hacia fuera, la del conjunto de la población.

Esther Saavedra, responsable de Osakidetza, explica que el proceso de vacunación supone un reto para el sistema sanitario, especialmente si tenemos en cuenta que lleva años infradotado y sobrecargado y que, en los últimos meses, se ha situado al borde del colapso ya que su tareas se han multiplicado: PCR, cribados masivos, vacunación de la gripe, vacunación del COVID, aumento de ingresos, sobrecarga de las UCI...

“No se ha reforzado el sistema para realizar el proceso de vacunación con garantías, ni siquiera se nos ha querido informar sobre cómo se va a organizar. Ya estamos viendo las consecuencias de la opacidad y la falta de información, planificación y refuerzo: el proceso de vacunación de la plantilla de Osakidetza está siendo un auténtico desastre y no se están cumpliendo los protocolos. Ello está derivando en la desprotección del personal que trabaja en primera línea contra la pandemia ya que, mientras en algunos centros y OSIs está vacunada prácticamente toda la plantilla, en otros, apenas se ha comenzado a vacunar a personal de primerísima línea como las urgencias. Las vacunas que se van recibiendo deben ser destinadas al personal que más riesgo soporta”.

A pesar de ello, Osakidetza sigue apostando por la imposición y la falta de información. “Más allá de las declaraciones de buenas intenciones, no hay encima de la mesa ninguna medida tendente a dar solución a los problemas que atraviesa Osakidetza, por eso no nos dejan otro camino que la movilización para exigir una negociación real y con contenidos”.

Respecto a la vacunación del personal de Osakidetza, el escándalo está servido. “Desde el Gobierno Vasco se dice que los protocolos de vacunación son claros y estrictos y que priorizan la inmunización de las personas vulnerables y más expuestas al riesgo. Sin embargo, no hemos sabido con tiempo ni el calendario de vacunación ni qué profesionales y servicios se protegerían de manera prioritaria”.

Los casos de Basurto y Santa Marina

Pero si eso era denunciable, la gota que ha colmado el vaso ha sido el nepotismo de algunos altos cargos, como el director gerente de Basurto y el de Santa Marina. “El 19 de enero, ELA ya denunció el malestar entre los trabajadores y trabajadoras del Hospital Basurto ya que los primeros vacunados y vacunadas no habían sido trabajadores/as de primera línea, sino determinadas jefaturas”. ▶



Esther Saavedra

Posteriormente, se ha sabido que el gerente de Basurto y otros miembros de su equipo –profesionales que no trabajan en la atención directa al paciente– se vacunaron en secreto a principios de enero, saltándose todos los protocolos de orden y prioridad fijados.

En el caso de Santa Marina, en contra de lo establecido en el protocolo, se decidió vacunar a toda la plantilla del centro (independientemente de su nivel de riesgo), incluido el gerente y otras personas que, de manera habitual, transitan por el hospital. Así, mientras en Santa Marina se ha vacunado incluso a personas que no hacen labor asistencial, en otros centros, personal de Urgencias, Emergencias o UCI, por ejemplo, siguen esperando su vacuna.

“Txertoekin gertatu denak agerian uzten du Osakidetza haientzat kortijo bat dela, eta nahierara egiten eta desegiten dutela”

“Es otra prueba de que Osakidetza es para ellos un cortijo, en el que hacen y deshacen a su antojo. Lo hemos visto con las irregularidades de la última OPE (enchufismo y filtración de exámenes) y se está corroborando con la campaña de vacunación”, denuncia Saavedra, que destaca, además, que lo sucedido con las vacunaciones ha traído, también, la dimisión de dos jefaturas de Debabarrena. ■

Santa Marina, ejemplo de la falta de planificación en Osakidetza

Esther Saavedra, responsable de ELA en Osakidetza

Es inadmisible que la consejera Sagardui haya intentado utilizar, dentro del desastre de planificación general, la vacunación de la representación sindical (que no debiéndose haberse producido, fue una directriz marcada por la dirección del centro de Santa Marina) para desacreditar a los sindicatos y al propio personal sanitario y esconder la deficiente gestión que está realizando.

Lo sucedido en Santa Marina es un ejemplo del descontrol, la opacidad y la falta de planificación con la que se está llevando a cabo el proceso de vacunación de la plantilla de Osakidetza. Según las palabras de la propia Consejera, además de contravenir el protocolo vacunando a personal que no debía haber sido vacunado en ese momento y al propio gerente, en Santa Marina se vacunó, además, a 4 delegados y delegadas sindicales, a 4 personas pertenecientes a servicios religiosos, a 2 personas externas de una empresa de vending y a 2 personas de una empresa de paquetería. El detalle de lo sucedido da buena cuenta del caos en el proceso de vacunación.

Esas vacunaciones nunca debieron producirse pero, si se produjeron, fue en cumplimiento del protocolo diseñado por la gerencia del Hospital Santa Marina y son, sin duda, consecuencia directa de la falta de negociación de los protocolos, la falta de información, la opacidad y el deficiente despliegue del proceso, cuya responsabilidad corresponde, en exclusiva, al Departamento de Salud y a la propia Consejera.

En relación con los delegados y delegadas sindicales, a los pocos días de comenzar las vacunaciones del personal de Osakidetza –que conocimos a través de los medios en un contexto de opacidad y falta de información–, en una reunión de salud laboral se informó a los representantes sindicales de que en Santa Marina la estrategia de vacunación era la de vacunar a toda la plantilla y también a todas aquellas personas que, de manera habitual, transitan por las instalaciones. Y ello, debido a las especiales características del mismo (atiende a pacientes de edad avanzada y ha sido *hospital covid*) y con el objetivo de proteger a todo el colectivo. Dentro de ese planteamiento se indicó que los delegados y delegadas sindicales también debían vacunarse, ya que son personas habituales en el centro, por lo que, para seguir haciendo esa labor con seguridad y proteger al hospital, debían vacunarse una vez que ya había finalizado la vacunación de toda la plantilla. Así, el delegado de ELA, que es personal de Osakidetza, siguiendo las instrucciones de Salud Laboral, procedió a vacunarse.

A la vista del descontrol en las vacunaciones, el 26 de enero, en la reunión de la Comisión Corporativa de Seguridad y Salud mantenida con la dirección de Osakidetza, ELA ya manifestó su postura de que las y los delegados sindicales, liberados a tiempo completo, en tanto en cuanto no realizan labor asistencial deben ser vacunados junto con el último grupo de prioridad destinado a estos trabajadores y trabajadoras, a saber, cumpliendo lo que dice el propio protocolo. Osakidetza, a posteriori, ha modificado el protocolo en el sentido solicitado. ■

CONSULTORIO JURÍDICO

SUBCONTRATAS: CERRADO UNO DE LOS COLADEROS DE LA TEMPORALIDAD

El 29 de diciembre el Pleno de la Sala de lo Social del Tribunal Supremo dictó una Sentencia que corrige la jurisprudencia anterior en materia de subcontratación que permitía el abuso de contratos temporales en empresas subcontratistas. Si repasamos el marco legal, el contrato indefinido es la regla y el contrato temporal la excepción. La contratación temporal queda reservada a los concretos supuestos regulados en la ley: sustitución de personas que están en situación de incapacidad temporal o excedencia, atención de picos de producción o cobertura de una necesidad temporal que no constituya la actividad principal de la empresa. El resto de contratos son de personal fijo. Hasta aquí la teoría.

Sabemos que la práctica es otra historia: según datos del Servicio Público de Empleo Estatal (noviembre 2020), de un total de 1.449.810 contratos, solo el 8,84% (128.189) fueron indefinidos, mientras que el 91,16% (1.321.621) fueron temporales. Entre estos la palma se la lleva el contrato de obra o servicio determinado que supone el 44,2% de todos los contratos temporales registrados. Casi la mitad de los contratos temporales de obra o servicio se dan en el sector servicios.

La utilización abusiva de la contratación temporal en este sector ha estado amparada por la jurisprudencia del Tribunal Supremo que, desde finales de la década de los 90, admitía que, en la subcontratación de actividades, la duración del contrato del personal se ajustara a la duración del contrato de la empresa subcontratista con la empresa principal. En la práctica, esta jurisprudencia añadía una causa más a las previstas en el artículo 15.1 del Estatuto de los Trabajadores, al justificar la temporalidad del contrato laboral por la temporalidad del contrato mercantil entre empresa principal y subcontratista, haciendo caso omiso de la naturaleza del trabajo que realizaba la persona contratada. La nueva línea interpretativa que establece la Sentencia de 29 de diciembre cierra este coladero de temporalidad, al rechazar "*la limitación temporal de los contratos de trabajo en atención a los contratos mercantiles de las empresas*".

Esta corrección de criterio debiera servir para evitar que empresas de servicios a terceros desarrollen la práctica totalidad de su actividad a través de la contratación temporal, sin tener apenas personal fijo en sus plantillas. Como ha sentenciado el Tribunal Supremo, "*resulta difícil seguir manteniendo que la empresa pueda apoyar la esencia de su actividad en una plantilla sujeta al régimen de indeterminación de las relaciones laborales*".

Puede ser aventurado adelantar que esta sentencia contribuya, como debiera, a una reducción significativa de la temporalidad de los contratos de trabajo. Pero es incuestionable que este nuevo criterio convierte en fraudulentos y, por tanto, en indefinidos, un número importantísimo de contratos temporales. Su reconocimiento como tales no debe esperar. Es de exigir una intervención eficiente de la administración, a través de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social.

Krisi berriari aurre egiteko erreza zaharrak

Eusko Jaurlaritzaren 2021eko aurrekontuek ez dute balio gizarteak dituen beharrei aurre egiteko; soilik %3 igo da

> Landeia

Otsailaren 11n Eusko Legebiltzarrak 2021. urterako aurrekontua aurrera atera zituen, Eusko Jaurlaritza osatzentzen duten bi alderdien babesarekin –EAJ eta PSE-EE–. ELAk aurrekontu hauen inguruko irakurketa ezkorra egiten du, krisi hirukoitz baten erdian gauden honetan –sanitarioa, ekonomikoa eta soziala– ez dituelako egoera honi aurre egiteko neurriak jasotzen.

Eusko Jaurlaritzak prestatu duen aurrekontu-proiektuan 2021erako 12.442 milioi euroren gastua aurreikusten da. Zorraren ordainari (983,2 milioi) eta herrilanen aurrerapenari dagozkion atalak kenduta, Jaurlaritzak 2021ean bere sailtarako 11.396 milioi euro izango ditu, hau da, soilik 2020ko aurrekontu

kontsolidatua baino 338 milioi euro gehiago (%3 eskasa).

ELAk idazkari nagusiak, **Mitxel Lakuntzak**, argi du hauek ez direla EAk behar dituen aurrekontuak. “Zehaztasun handiagoa eta inbertsio handiagoa behar dira egoerari aurre egiteko. Gure inguruko herrialde batzuk pandemiari aurre egiteko egiten ari diren ahaleginarekin alderatuz gero, konparazioa eskandalagarria da. Batez ere Eusko Jaurlaritzak dituen eskumenekin zerikusia duten partidak aztertu besterik ez dago. Beraz, ia ez dago ahaleginik, anekdota bat Alemania edo Frantzia bezalako herrialdeak erabiltzen ari diren Barne Produktu Gordinaren ehunekoari dagokionez. Eusko Jaurlaritzak kontsigna bat du: ahalik eta gutxien gastatu eta ahalik eta propaganda gehien erabili”.

Inbertsioan aurrekontuek jasotzen duen hazkundea txikia izateaz gain, nondik gatozen ere kontutan hartu behar da. “Azken urteetan osasungintzako edo hezkuntzako langileek greba eta mobilizazio ugari egin dituzte, eta horietan sektore horiek dituzten gabezia eta arazo estrukturalak salatu dituzte. Orain, pandemiarekin, urak gainezka egin du, baina arazoak eta gabeziak lehendik zetozen. Hau oso argi ikusten da Osakidetzan. Europar Batasunean, bataz beste, Barne Produktu Gordinaren %7a bideratzen da osasungintzara; Euskal Autonomia Erkidegoan kopuru hori %4,8a da. Europako bataz-besteko hori berdintzeko 1.800 milioi euro gehiago bideratu beharko lirateke osasungintzara”.

Lakuntza: “El Gobierno Vasco tiene una consigna: gastar lo menos posible y utilizar la mayor propaganda posible”



Egoera hau komponentzeko zerga sistemaren inguruko eztabaidea ireki behar da. “Zoritzarrez, herri honetan inork ez du eztabaidea hori ireki nahi. Zerga-erreforma bat eskatzen dugu, zerga-bilketa handituko duena, errenta altuek, kapitalak, ondareek eta enpresek beren mozkinengatik ordaintzen dituzten zergen igoera nabarmenaren bidez. Eusko Jaurlaritzak, eta, batez ere, EAJ-k, ez dute gai honen inguruan ezer jakin nahi. Presio fiskala Europar

Batasuneko bataz-bestekotik oso behera dago, hamar puntu beherago, baina hemen helburua gutxi batzuk ahalik eta zerga gutxien ordaintzea da. Eusko Jaurlaritzaren estrategia argia da, erreforma fiskalari uko egitea eta zorpetzearren alde egitea. ELA ez dago zorpetzaea epe laburrean tresna gisa erabiltzearen aurka, baina baldin eta atzetik B plan bat badu: zerga erreformari ekitea".

Lakuntza: "Es urgente una reforma fiscal que aumente la recaudación a través de un fuerte incremento de los impuestos que pagan las rentas altas, el capital, los patrimonios y las empresas por sus beneficios"

Ezkerreko alderdiek jarrera kritikoagoa faltan

Aurrekontuen inguruan jarrera kritikoago bat ez izatea leporatzen die Lakuntzak EH Bildu eta Ahal Dugu-Podemos alderdiei. "Badirudi ezkerreko alderdiek konplexu puntu bat dutela eta kosta egiten zaiela aurrekontu hauen aurkako jarrera irmoa azaltzea. Sakoneko irakurketa zorrotza faltan botatzen dugu. Ezkerreko alderdi horiek bat badatoz, adibidez, ELA planteatzen duenarekin, uste dugu jarrera irmoago bat izan beharko luketela. Bestela, amaieran, zeharkako gai partzialez hitz egiten amaitzen dugu, edo diru-partida zehatz batzuen inguruan. Uste dugu ez dela sakoneko kritika egiten".

"Ezkerrak alternativa oso argi bat defendatuko beharko luke. Sarri askotan ematen du ezberdintasunak ez direla horren nabarmenak, eta horrek askotan nahasmenerako bidea erraztu lezake". ■

El mantra de los presupuestos sociales

Mikel Noval, responsable de Política Social

Una vez más (y van...) el Gobierno Vasco ha sacado su máquina de propaganda, con los medios públicos de comunicación a la cabeza, para tratar de convencer a la población de la bondad de su proyecto de presupuestos. "Unos presupuestos sociales", repiten como si fuese un mantra. Y como argumento definitivo, "el 77,8% de este proyecto corresponde a políticas sociales. De nuevo, casi 8 de cada 10 euros se destinan a Salud, Educación, Empleo y Políticas Sociales", dice la nota oficial colgada en Ireakia.

No me parece que sea algo especialmente excepcional que el Gobierno Vasco, cuyas principales competencias son la Salud, la educación, el empleo y las políticas sociales dedique la mayor parte de su presupuesto a eso. Ya solo faltaría que encima destinase la mayor parte del presupuesto a otras cosas, en vez de a lo que son sus competencias básicas. Que casi el 80% de su presupuesto se destine a políticas sociales no quiere decir que sea un presupuesto social, simplemente es un reflejo de las competencias de ese gobierno.

Para ver si el presupuesto es social habría que ver si se da respuesta a las necesidades sociales existentes. Y eso no ocurre, ni de lejos. Son evidentes las carencias del sistema sanitario. Éstas han quedado más en evidencia con la pandemia, pero ya eran una realidad anteriormente. ELA presentó hace unos pocos meses un

informe que detallaba la situación de sobrecarga de trabajo, la insuficiencia de medios humanos (muy por debajo de la media europea), las carencias de la atención primaria, o la escasa importancia que se da a la salud pública y a la prevención. Las carencias del sistema educativo son también estructurales. Y la política de recorte de las prestaciones sociales deja fuera de la cobertura del sistema a una de cada 3 personas en situación de pobreza, mientras que la RGI está sometida a recortes de más de 270 euros mensuales. Todo esto muestra que los presupuestos muy sociales no es que sean.

Esta conclusión se agiganta al comparar las dotaciones presupuestarias en Salud y Educación con los países de nuestro entorno. En ambos estamos a la cola europea. En Salud, para alcanzar la media europea, habría que destinar 1.810 millones más en el presupuesto del año 2021, lo que aumentaría esta partida en un 43%. En lo que respecta a educación llegar a la media europea supondría invertir 787 millones más, un 25% más de lo que pretende el Gobierno Vasco.

En definitiva, los presupuestos sociales se quedan para la propaganda, mientras que en nuestro día a día tenemos que sufrir las consecuencias de la opción del Gobierno Vasco, que no es otra que gastar lo menos posible, a costa de la calidad de vida de la ciudadanía, que en gran medida depende de la calidad de los servicios públicos, cada vez más deteriorados. ■

Trantsiziotik metamorfosira

Bizi mugimenduak datozen urteetarako bide-orria adostu du. Orain arte egindakoa azterturik, erronka berriak (digitalaren ondorioak eta etxebizitza) jarri dizkio bere buruari; hamar urtetan 20tik 700 militante izatera igaro da

> Xabier Harlouzet

Klima aldaketa justizia sozialaren ildotik borrokatzen duen Bizi mugimenduak "Trantsiziotik metamorfosira" 2020-2024 bide-orria adostu du bere azken biltzar nagusian. 6 hilabetez landu txostenean, Iparraldean gaindi iragan den eztabaidea, gogoeta eta trukaketa aberatsez osatuko prozesuari esker, lehentasuneko lan ildoak eta ibilmolde hobekuntzei buruzko erronkak finkatu ditu. Orain arte egindakoa azterturik, erronka berriak (digitalaren ondorioak eta etxebizitza) jarri dizkio bere buruari Bzik.

2009ko ekainean sortua, Bizi! 20 kidetik 700era pasatu da, azken lau urteetan, %60eko igoera ezagutuz. Kide kopuru horrek elkartearren aldarrikapenei Iparraldean nolabaiteko zilegitasuna emaiten dio. Kopuru horren emendatzea larrialdi klimatiko eta sozialaren kontzientzia hartzearen hedapenari, Biziren eraginkortasunari eta ez-ohiko egin-moldei bai eta ekintza irriigarri eta ikusgarriei lotzen da gehien bat. Bizi! egituratu da lan talde eta tokiko taldeetan (Xiberoa, Baxe-Nafarroa, Hego Lapurdi, etab.). Parte hartu du Iurrealdeko beste hainbat aktoreren ondoan, Ipar Euskal Herriko hainbat alternatiba zehatz eta iraunkorren

sortzean. Konduan hartua den eta garaipen zehatzak lortzen dituen tokiko aktore bat bilakatua da, horren bidez bere ekarpena egiten du trantsizio ekologikoaren arloko tokiko alternatiben ekosistemaren sendotzean.

5 urte COP21a eta Pariseko Akordioa eta gero

Duela urteak Biziko kideek mailukatzen dutena, beti aktualitatean da, 5 urte COP21a eta Pariseko Akordioa eta gero. Klimaren borroka, borroka guzien ama da, eta orain jokatzen ari da: nahiz eta saihestezinak diren fenomenoak orain martxan diren, hamarren bakoitza importantea da, izan ere, +1,5°C-ko mundua, +3°C-ko mundua baino guttiago piesago izanen baita. Hein guzietan jokatzen da: nazioarte mailan, Estatuen eredugarritasuna bultzatzeko eta egiazko justizia klimatiko baten

plantan ezartzeko; Frantziako Estatu mailan gobernuia herritarren bozaren entzuterat behartuz eta sistema jasangarri bateko lehen gidamarkak izan behar luketenak ezarriz; tokiko mailan, Iurrealdeak itxuraldatuz, eta bertan demokratikoki antolatzeko, berotzeko, mugitzeko, elikatzeko, besteei harrera egiteko.... beste molde batzuk esperimentatuz.

Bizirrentzat, bost urte hauetan, gobernuen ekintza ezak klima-erronka are handiago bilakatu du. Klimaren krisiaren inpaktuak gero eta usuago, bortitzago eta hiltzaileagoak dira. Trantsizio ekologikoa emekiegi joan da Parisko Akordioaren helburuak betetzeko. Alta, berotze globala 1,5 °C-ra mugatzea ezinbestekoa da, herritarren eskubideak errespetatzeko (osasuna, enplegu duin eta egonkorra, elikadura sano eta iraunkorra), aldi berean ekosistemak babesteko eta justizia klimatikoaren alde egiteko.

Bizi ha acordado la hoja de ruta para el periodo 2020-2024. Tras analizar lo realizado hasta ahora, se plantean nuevos retos como las consecuencias de lo digital o la vivienda. La hoja de ruta, aprobada en el último congreso, es el fruto de un proceso de debate que ha durado seis meses



Gizartea kontzientziatzea eta mobilizatzea

Bizirrentzat, herritarren mobilizazioak eginkizun bikoitza du: lehenik, herri mailako indar harremana eraikitzen du, erabakitzale politiko eta ekonomikoak hertsatuz, zerbait egitera behartzeko eta garaipenak lortzeko. Anartearen tokian tokiko erresistentzia egiten du Bizik klimari kalte egiten dioten proiektuak eragozteko, eta lurraldea aldatuz, gizarte ez hain kutsazaire, justuago, solidario, kooperatibo eta laketago baten bidea erakusten duten alternatibak modu masiboan garatuz. Hori, gehiengo politiko demokratikoa eraikitzeko, helburutzat duen aldaketak biztanleria osoa inplikatu behar duelako eta iraunkorra izan behar duelako.

Datozen 4 urteentzat erronkak

Ber bide-orri berrian, Bizik jarraian diren erronkei lehentasuna eman die:

- Lurraldearen metamorfosi ekologiko eta soziala zehatza bilakarazteko ekarpena, martxan diren alternatibei sustengua ekarriz eta Ipar Euskal Herriko Herriko Etxeen Herrien eta Hirigunearen mailako engaiamenduen jarraipena eginez.

- Masa mugimenduaren eraikuntza, alternatiben aitzinean emaitarekin bai eta ere agertzen ahal litaizken klima suntsitzaleak diren proiektuei erresistentzia egitearekin.
- Jadanik martxan diren hainbat proiekturen jarraipena, bereziki mugikortasunaren eta etorkinen gaiaren arloko sentsibilizazioa. Baino ere ekintza eremu berri batzuren abiatzea, etxebizitzaren eta digitalaren arloan.

Ekintza eremu berriak

Digitalari dagokionez, "etengabe emendatzen diren berotegi efektuko emisioak" dituzte jomugan, baita "teknologien gibelean den gizarte eredu" ere; "beti eta teknika gehiagorena, beraz, beti energia gehiago xahuturik". Nolaz ez, 5G teknologiaren eztabaidea sartzen da horretan.

Bizitegien ardatza, ardatz egituratzaile bezala ikusten du Bizik, bizitegiena, garraioari loturik delako, besteak beste. "Lurren gaineko presioa, bizitegien kalitatea, turismoaren eragina, eta horiei lotu gas emisioak" angelua erabiliz.

Antolaketa hobetu

Trantsziotik metamorfosira lau urteko txosteneko laugarren atala mugimenduaren antolaketari buruzkoa du osoki Bizik. "Biziren antolakuntza eta funtzionamendua hobetzea" deitu duena. Kide berriak egin, horien harrera ona, jarraipena eta formazioa bermatu, gobernantza hobetu, lantalleak indartu eta egonkortu jarri ditu betekizun gisa.

Alda, etorri berria

Alda jendarte herrikietako jendetza, familia eta pertsonen interes eta xedeak defendatzen dituen elkartea aurkezta zuten joan den larrazkenean, Baionan, jendei beren ahalaren berreskuratzea ahalbidetzea da, eta beren bozaren entzunazaraztea ahalbidetzeko. Sortzaileetan agertzen dira, besteak beste, Biziko arduradun ohi eta gaur egungo kide batzuk.

Biziko belaunaldi berriko arduradunek begi onez ikusi dute. Ez dute uste indarren aldetik batak besteak ahuldu dezakeenik. Alderantziz, iniziatiiba berri honek beste dinamika bat sortuko du, jende eta militantzia berriak ekarriz. Garaian Euskal Moneta ekartearerin gertatu zen bezala, Bizikoek parte hartu zuten abiarazten. ■



Zoriontsu izateko, sindikalizatu

Euskal Herriko eta nazioarteko hainbat ikerketek agerian uzten dute sindikatuen jarduna ezinbestekoa dela langileen lan eta bizi baldintzak hobetzeko. Sindikalizatutako langileak sindikalizatu gabekoak baina zoriontsuagoak dira eta estres maila txikiagoa dute.

> Aiala Elorrieta

Badakizue sindikalismoa bizi ongizatearekin eta zoriontasunarekin lotuta dagoela? Gu konbentxituta gaude horretaz. Epaitegietan irabazitako sententzia batek, lan-osasunean hobekuntza galantak izatea ekar dezake (Donostia metroa). Negoziaketa irmo edota greba baten ondorioz lortutako hitzarmen duin batek, langile-klasearen lan eta bizi baldintzak hobetzen dituzte (Irurtzungo Puertas Dile). Bai eta frontoian baldintza hobeagotan jokatzeko ere! Gainera, antolatuta gauzak alda daitezkeela barneratzeak, langileak boteretzen ditu. Galdetu bestela erresidentziako emakumeei!

Zalantzak gabe, sindikalismoa bizitza hobeak eraikitzeko tresna da, baldin eta langile-klasearen eskura dagoen tresna erabilgarria izaten jarraitzen badu. Gainera, bizitzak hobetzen jarraitzeko eraberritu beharra daukagu. Eraberritzeak kanpora begiratzea exijitzen du: kanpora beste lurralde batuetan sindikalismoa zertan ari den ikusteko, eta kanpotik ere guk egiten duguna nola ikusten duten ulertzeko. Fundazioan ere, faltan bota izan ditugu langile mugimenduei fokua jartzen dieten ikerketa lanak: kanpora begira eta barrura begiratzen lagunduko liguketenak. Bilaketa ez da xamurra izan eta lekutara joan behar izan genuen, Quebec-eraino, **Christian Lévesque** eta **Gregor Murray** ikerlariak ezagutu ahal izateko. Gerora, **Christian Dufour**, **Adeleide Hege**, **Melanie Dufour-Poirier** eta **Blandine Emilien** ikerlari zinez interesgarriekin topo egiteko plazera izan dugu, egun bidelagun ere ditugunak.

Azkenaldian ospatzeko moduan ere bagaude eta zuekin partekatu nahi genuke. Ospatzeko da, esate baterako argitaratu berri dugun *Psikologia eta sindikatuak* artikulua. **Bernice Lott** (Rhode Island Unibertsitateko) psikologoak, auzi oso interesgarria plazaratzen du bere lanean: sindikatuak onuragarriak direla badioten datu enpírikoak egon badaude, zergatik

psikologia bezalako zientziak batek ez dio behar bezalako arreta ematen lanaren munduari? Sindikatuek merezitako arreta eta prestigioa beharko lukete psikologiaren aldetik. Zergatik dago itsu psikologia sindikalismoa eta langile-klasearekin lotutako gaiekiko?

Artikuluan zehar Lottek aipu ugari txertatzen ditu, bere tesi sostengatzen dutenak: sindikatuek langileen bizitza eta zoriona hobetzen dutela. Aipuetako bat hona ekarriz: "Afilazio sindikalak depresio eta tristurarekiko kontrako erlazioa du eta afiliatutako langileek sindikatuz gabeko langileek baino zoriantasun maila handiagoak eta estres maila txikiagoak erakusten dituzte". Era berean, sindikalismoa autoestimuarekin, boteretzearekin, demokrazia maila handiagoarekin, parte-hartza handiagorekin, emakumeen mugimendu antolatuekin lotzen duten pasarte esanguratsuak ere jasotzen ditu.

Las personas con afiliación sindical muestran mayores niveles de felicidad y menores niveles de estrés que las no sindicalizadas

Goraipatzeko da ere, EHuko ikerketa talde batek abian jarri duen lana. Abiapuntua: Erakunde-psikología, zientzia den neurrian, onuragarria izan daiteke jendarte osoarentzat. Enpresaburuek beraien alde erabiltzen dute, erabiltzen al du langile mugimenduak bere interesak defendatzeko? Galdera horren bueltan erantzunak bilatu nahian, ikerketa martxan jarri dute. Akaso, erakunde sindikalek Erakunde-psikologiari buruz duten irudia, distortsionatua izaki, oztopo bat da, erakunde-psikología eta erakunde sindikalaren arteko harremanari zukua ateratzeko. Alegia, erakunde-psikología geure alde erabiliko bagenu? Hortaz, agian eraberritze horretan, erakunde psikología akiuilu izan liteke.



Honekin lotuta, badugu adibide bat eraberritzte sindikala eta psikología lotzen dituena. Melanie Dufour-Poirier CRIMT-eko ikerlaria (Quebec) gurean izan genuen 2017an. Ahozabalik entzun genituen bere etorkizunerako augurioak: "Ekonomi Lankidetza eta Garapenerako Erakundeko herrialdeetan langileen %35 inguruk arazo mental arruntak edo larriak nozitzen ditu (2012ko datuak). Osasunaren mundu erakundeak aurreikusten zuen 2020rako depresioa izango zela laneko ez-gaitasunerao arrazoi nagusia". Datuen horien artean kokatu zuen ordezkarri sozialen figuraren azalpena. Ordezkarri sozialak, sindikatuko kideak dira, lan zentroan dabiltsanak, baina beraien zeregina da arrisku psikosozialen aurrean jendea laguntzea. Gisa honetako tresnak asmatu beharko ditugu geuk ere akaso, pandemiarekin biziagotu diren arrisku psikosozialen aurrean zerbait egin nahi badugu.

Euskal Herriko egoera aztergai

Hirugarren poz bat ere badugu hona ekartzeko: Euskal Herriko Kontrabotereko sindikalismoari merezitako lekua eskaintzen dion artikulu akademiko baten argitalpena. Ikerketa Britania Handiko Lan Harremanetarako Egunkariak (*British Journal of Industrial Relations*) publikatu du. Bertan, **Jon Las Heras** eta **Lluís Rodríguez Algans** ikerlariek, kontraboterea eta eraberritzea estu lotuta doazela

erakusten du, datu enpirikoetan sostengatuta.

Datuek, besteak beste, Europaren greba egun gehien egiten den herrialdea garela erakusten dute. Greba egun kopuru handiaren atzean ELA, LAB, ESK eta Steilas sindikatuen jarduna dago, gatazkei aurre egiteko bide ezberdinak, *elkarrikzeta sozialaren* sindikatuei kontrajarria dagoena. Ikerlanak gure sindikatarentzat altxor diren gakoak erdigunean jartzen ditu: autofinanzaketa, afiliazioaren garrantzia, erresistentzia-kutxa, autonomia politikoa, antolakuntza tresnak eta baliabide sindikalak, eraberritza, besteak beste.

El sindicalismo, si quiere seguir siendo un instrumento útil al alcance de la clase trabajadora, tiene que construir mejores vidas

Hurrengoetan ere izango dugu zuekin zer ospatu. Goiko lerroetan jasotako adibideek, berretsi egiten digute jakin bagenekeiak: sindikalismoak bizitzak hobetzeko balio duela. Are gehiago, ikerketa hauek nolabait, sindikalismoa inguratu egiten dute. Eguneroakoan, kaleetan, lantokietan eta gure bizitzetan ukiparri den hori guztia, borobildu egiten dute. ■



Azken asteetan gora egin dute enplegua erregulatzeko espedienteek aeronautikaren sektoreko enpresetan

“Abaguneko arazo bat egiturazkoa bihurtu nahi dute”

Aernnova, Alestis, Aciturri, ITP, PCB, Mtorres, Lauak, Burdinberri, Nuter, IDEC, DMP, Metraltec, Auxia... Asko dira azkenaldian Euskal Herri osoan zehar aeronautikaren sektorean enplegua erregulatzeko espedienteak aurkeztu dituzten enpresak. Aipatutako enpresa guzti hauek badute gauza bat komunean: azken urteetan dirutza irabazi ostean, Covid-19ak sortutako pandemia baliatu nahi dute lan-baldintzak okertu eta irabazi itzelekin jarraitzen. Hala dio loritz Iglesiasek, ELAk Arabako metalean duen arduraduna; sektoreko enpresa askok herrialde horretan dituzte lantokiak.

“Begi-bistakoa da azken hilabeteetan nabarmen jaitsi dela sektorean produkzioa, eskaera asko atzeratu egin dira. Baino bi gauza azpimarratu behar dira. Batetik abaguneko egoera da, egiturazkoa bihurtu nahi duten arren. Egungo osasun krisiari buelta ematen zaionean orain bertan behera geratu diren hegazkin eskaera asko itzuli egingo dira. Eta hau ez diogu guk bakarrik, enpresa hauek ere onartzen dute hori horrela dela. Bestetik, azken urteetan dirutza izugarriak irabazi dituzten enpresez mintzo gara, eta enpresa hauek badaukate egungo egoerari eusteko gaitasun ekonomikoa”.

Egoera honen aurrean langileak aurrera eramatzen ari diren borrokak goraipatzen ditu loritz Iglesiasek. “Ez dago borrokatu besterik. Langileak horretan ari dira, eta ematen ari diren erantzuna txalogarria da. Baino, era berean, erantzukizunak eskatzeko ordua da. Batetik administrazio publikoari, urte hauetan milioika euro publiko eman dizkietelako enpresa hauei. Bestetik, patronalari eta enpresa hauen zuzendaritzei. Onartezina da izugarritzko dirutza irabazi duten enpresa hauek ehunka lagun kaleratu ahal izatea ia musu-truk”.

En la aeronáutica no sobra nadie

Ioritz Iglesias, responsable del metal en Araba

El sector aeronáutico es un sector estratégico, semi público y financiado con un gran capital público. Es un sector dominado por grandes compañías con capital público. En Europa Airbus es la empresa principal, pero también hay otras como Embraer, Bombardier o Boeing. Son grandes empresas, enormes, que han obtenido beneficios escandalosos los últimos años. Por debajo de ellas están empresas como Aciturri, Aernnova, Alestis o ITP, que tienen detrás a fondos de inversión buitre, empresas piratas y demás multinacionales, con un único objetivo: dar ganancias todos los años y repartirse beneficios y dividendos. Empresas que han tenido en la creación y durante el transcurso de los años el empuje de dinero público. Y después están las PYMES que trabajan para estas últimas, de las que el tejido industrial de Euskal Herria está lleno. La tónica general es que en los últimos años todos han ganado dinero, mucho dinero.

En esta situación sanitaria, derivada del Covid-19, es evidente que hay una bajada de producción. Está claro que es un sector tocado, no tiene sentido negarlo. Pero tampoco se pueden negar las ganancias obtenidas en los últimos años, ni que la crisis sanitaria va a ser temporal. El sector aeronáutico no está en una situación de reconversión, no es un sector con perspectivas malas o a la baja. Los aviones que se iban a hacer se han visto atrasados, nada más. Por tanto, las medidas han de ser coyunturales.

Es este nuestro argumento en todas las negociaciones y las propias empresas así lo reconocen. Han reconocido en sus ERE y despidos,

en el caso de Alestis y Aernnova, por ejemplo, que esto volverá y que es posible que necesiten a los trabajadores despedidos en un futuro creando para ello bolsas de trabajo.

Lo que están haciendo es aprovecharse de la coyuntura para sus manejos empresariales, y cuando se reinicie el trabajo del sector maximizar sus beneficios con todas las medidas que se hayan llevado a cabo. Esta situación les viene de perlas para llevar al cabo los planes que tenían previstos: ventas, fusiones, deslocalizaciones... En la Aeronáutica no sobra nadie De sobrar sobran los fondos de inversión, empresas piratas y gobiernos ausentes a los problemas de la clase trabajadora de la aeronáutica.

No hay política industrial

Debemos pedir implicación a las administraciones. Hablamos de un sector ayudado con dinero público, por lo que tenemos que exigir garantías de empleo. Además, las administraciones tienen la capacidad de plantear un Plan Industrial serio para el sector. Y, por supuesto, debemos dirigirnos a las empresas. No podemos caer en privatizar las ganancias, que ya se han repartido a modo de dividendos y beneficios en los últimos años, y socializar las pérdidas. Y menos cuando las grandes empresas pueden aguantar un tiempo en esta coyuntura. Hay soluciones, como crear un fondo con el dinero público destinado a las empresas y sus enormes beneficios. No olvidemos que son empresas que en muchos casos no pagan en impuestos de sociedades ni una décima parte de sus beneficios.

Solo nos queda la lucha sindical y exigir una Política Industrial seria. Estamos en manos de fondos buitres, empresas piratas y administraciones pasotas, pero con unos trabajadores y trabajadoras dispuestos a luchar que han demostrado la dignidad de la clase obrera. Lo que pretenden es seguir como hasta ahora pero con mayores ganancias, debido a lo que está facilitándoles hacer la crisis sanitaria. ¡A luchar! ■



la 600 greba egun hitzarmen propio baten defentsan

Novaltiako langileek urte eta erdi pasata daramate graba mugagabea, ia 600 egun. 2019. urteko uztailaren 22tik, hain zuzen. 2017an euren hitzarmen kolektiboa iraungi zen. 2019an zuzendaritzak hitzarmena berritzeko mahai aldebakarrez apurtea erabaki zuten, langileei Estatu-mailako hitzarmena aplikatzeko. Novaltiak langileak prekaritatera zigortu nahi zituela ikusita, langileek greba mugagabea deitu zuten, helburu hauekin: hitzarmena berreskuratzea, eskala bikoitzak kentzea, azpikontratazioa mugatzea eta soldatzaigoera handiak.

Euskal Herriko botika banatzailerik handiena da Novaltia. Bere egoera ekonomikoa oso ona da, urtero dirutza irabazten du. Hala ere, soldatarik baxuenak ez dira hilean 950 eurotara heltzen. Borroka gogorra daramate Novaltiako langileak. Batetik negoziatzeko borondaterik ez duen empresa farmazeutiko bati aurre egin behar diote. Eta, bestetik, Lan Ikuskaritzari. Adibidez, 2019ko ekainetik 2020ko urtarriera arte, enpresak Aldi-Baterako Langileen Enpresaetako langileak kontratatu ditu gredulariak ordezkatzen. Lan Ikuskaritzak, nahiz eta horren berri izan eta enpresak Novaltian greba egiteko eskubidea urratu duela jakin, ez du ezer egin nahi izan.

Ez da erraza urte eta erdi baina gehiagoko greba bat aurrera eramatea. Hala ere, langileak indartsu daude. Euren arteko elkartasuna izugarria da. Eta, gainera, ELAren laguntza osoa dute. Horren lekuko, urtarriaren 22an Bilboko Kaleetan egin zen manifestazioa. Mugikortasun arazoei eta euriteei aurre eginez, sindikatuko ehunka militante atera ziren kalera Novaltiako langileei babesa ematera.

ELA elimina la brecha salarial de las trabajadoras de limpieza de las dependencias municipales de Zarautz

ELA y la empresa OHL Servicios-Ingesan firmaron el 16 de febrero un nuevo convenio de empresa de aplicación entre las trabajadoras que prestan servicio en las dependencias municipales de Zarautz (Gipuzkoa). El nuevo convenio tiene una vigencia de 5 años (2020-2024) en los cuales se garantiza una subida del IPC + 1,3 %, con un suelo del 2,3 %. Con este nuevo convenio se elimina la brecha salarial que sufrían las trabajadoras, que ahora contarán con un sueldo anual de 24.216,9€ en 2021. El convenio de limpieza de las dependencias municipales de Zarautz es uno de los convenios de limpieza de referencia en Gipuzkoa, habiendo conseguido eliminar la brecha salarial en comparación con la limpieza viaria y garantizando subidas durante 5 años más.



Idoia



Iraia



Lore



Raquel



Idoia



Edurne



Lucia



Begoña

PANDEMIA ETA HEZKUNTZA SAILAREN AURKA BORROKAN

Lucia Puertasek 25 urte daramatza eskola publiko baten jangelan lan egiten, 1995tik. Edurne Gorostigak, 7 urte gehiago, 32. Idoia Díaz de Tejada Cocina Central Magui enpresako langilea da Gasteizko San Martin eskolan. Iraia Mendozak Tamar enpresarentzat egiten du lan, kasu honetan Gasteizeko Ibaiondo zentroan. Idoia Rodríguez Auzolagun enpresako langilea da; Sasoeta Ikastolako haurrei jaten ematen die. Lore Aranzabalek ere Auzolagunen ari da lanean, Urkizu zentroan. Raquel Caballero Astur Servicios enpresako langilea da 2007tik, Eskola Garraioaren sektorean. Begoña Corres, Iraia Mendoza eta Idoia Rodriguezek enpresa bereko langileak dira, CIDI. Hirurak eskola garraioko sektoreko langileak dira, Araban eta Gipuzkoan.

Lucia, Edurne, Idoia, Iraia, Idoia, Lore, Raquel eta Begoña Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako jantoki eta eskola-garraio sektoreko langileak dira. Urtarrilaren 27 eta 28an greba egin zuten. Otsailaren 22an eta 23an ere hala egingo dute. Izan ere, ikasturtea irailean hasi zen arren oraindik ere Hezkuntza sailak ez ditu euren jarduna modu seguruan egin ahal izateko neurriak hartu. Egunak joan egunak etorri ikusten dute Hezkuntzak uko egiten diela euren aldarrikapenei.

Gehiegizko ratioak, segurtasun distantzia nahikorik ez izatea, ikasleen taldeen egonkortasun eza, autobusen aireztapenean edo babes neurriean gabeziak... Langileek osasunerako duten eskubidea auzitan dago. Euren osasuna dago jokoan; horregatik ari dira borrokan.



Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129